



HARRESIAK APURTUZ

COORDINADORA DE ONGs
DE EUSKADI DE APOYO
A INMIGRANTES

ETORKINEN LAGUNTZARAKO EGGen
EUSKADIKO KOORDINAKUNDEA

bbk =

Aurkibidea

Sarrera	5
Kataluniako Kazetarien Elkargoaren Kazetaritzako Estilo Liburua <i>Colegio de Periodistas de Catalunya</i>	7
Zenbait gomendio emakume etorkinak ikusezin eta biktima bihur ez daitezen albisteetan. "Generoa eta immigrazioari buruzko diskurtsoak prentsan" <i>Clara Pérez Wolfram</i>	13
Zenbait proposamen adin txikikoei albisteetan eman beharreko tratamenduari buruz <i>Mans Menudes</i> <i>Manual per a periodistes sobre la protecció de la infància</i> <i>en els mitjans de comunicació</i> <i>Petra M^a. Pérez Alonso-Geta, Universitat de València</i> <i>Unió de Periodistes Valencians</i>	14
Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren zenbait gomendio Immigrazioaren Tratamendu Informatiboari buruz	16
Bibliografia	

3

Euskadiko migrazio fenomenoak XIX. mendean gertatu zen Espainiar Estatuko milaka lagun beren sorlekutik irten eta gurera etorri zirenean Euskadi bizilekutzat hartuz. Datu historiko hau oinarritzeko aurrekaria da gure herriko migrazioaren historia azaltzeko, hala ere, orain beste immigrazio mota bat daukagu: Europar Batasunetik kanpokoak.

Euskadin dagoen Europar Batasunetik kanpoko etorkin kopurua txikia da beste herrialde eta autonomi erkidego batzuen aldean (esaterako, Andaluzia, Katalunia eta Madrilgo Komunitatea), baina ez dugu ahaztu behar gurean ere badirela eta beren eskubide eta askatasunak dituztela.

2000. urtean Kataluniako Kazetarien Elkargoak Immigrazioaren Tratamendu Informatiboari buruzko Kazetaritzako Estilo Liburua atera zuen, eta, izan ere, **HARRESIAK APURTUZ**-ek bere lan-ildo garrantzitsuenetako bat egiaztatu du liburu honekin. Hainbat mintegi eta jardunaldi antolatu ditugu Hedabideei eta Immigrazioari buruz, eta ildo horretatik eztabaida eta hausnarketa piztu dugu hedabideetan, kazetaritzako profesional eta enpresen artean, erakundeetan eta eskal gizar artean oro har.

Joan den maiatzan **HARRESIAK APURTUZ**-ek Immigrazioaren Tratamendu Informatiboaren III. Jardunaldiak antolatu zituen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera, eta jardunaldi horien ostean "Kazetaritzako Jardunbide Egokien Eskuliburua" argitaratu genuen.

Migrazio fenomenoak, diaspora berriak eta herritarren lekualdatzeak bultzatzen dituen mundu globalizatu honetan, hedabide masiboek erantzukizun handia dute iritzi publikoa sortzeko orduan. Ikus-entzunezko hedabideetan zein prentsa idatzian argitaratutako albisteak, informazioak, iritziak eta kultur adierazpenak gure ingurune kultural, sozial eta politikoaren balore eta jarrera sortzaile dira.

Kazetaritzako profesionalak, enpresek eta erakundeek ahalegin normalizatzaile bat egin behar dute etorkinei buruzko informazioa tratatzerakoan, esaterako: kultura desberdinen balore positiboak sustatu eta pertsona hauen balorazio sozialari kalte egin diezaioketen estereotipo eta termino semantikoak baztertu.

"Kazetaritzako Jardunbide Egokien Eskuliburua" BBK-ren diru-laguntzari esker argitaratu dugu, eta prestakuntzarako eta zalantzak argitzeko tresna izan nahi du. Azken finean, hedabideek, kaze-

taritzako profesional eta enpresek eta administrazioek hartutako konpromiso bat izan behar du beren gizarte erantzukizunari aurre egin diezaioten.

HARRESIAK APURTUZ

Etorkinen Laguntzarako EGGen Euskadiko Koordinakundea
www.harresiak.org

6



Kazetaritza estiloko eskuliburua*

1

- *Albistea bere osotasunaren ulertzeko behar-beharrezkoa ez bada, ez ditugu honelako datuak zertan eraman: etnia, larruaren colorea, jatorrizko herria, erlijioa eta cultura.*

Irudi onuragarrien eta irudi kaltegarrien bidez gizarteak sortzen dituen arketipoetara egokitu ohi da poertsona. Hala bada, irudi onuragarrien alde egin behar genuke, eta kaltegarrien aurka. Herritar gehienek duten irudi - eta arketipo-multzoko horiek erabiliz lan egiten dute hedabideek, informazio-mezua erraz uler dadin.

Horrenbestez, beharrezko dirudi denok -igorle zein jasotzaile- gure inguruaren ikuspegi doia izan dezagun eta horren arabera defini dezagun.

Albistea prestatzean, kazetaritza-informazioaren oinarritzko osagaiak (zer?, nork?, non?, noiz?, zergatik?) agerrerezteko asmoz, zenbait datu gehigarri horiek; hala ere, gehigarriekin lortzen den azken emaitzaren arabera, hartzaileek era batera edo bestera ikusiko dute errealitatea hedabideen bidez.

Kazetarion eguneroko jardunean, begi-bistakoa da pertsona baten etnia, larruaren colorea, jatorrizko herria, erlijioa edo cultura ez direla albisterik sortzeko moduko datuak, baldin gizarteko giza arketipo nagusiari buruzkoak badira. Bestetik, albistea zuzenean edo zeharka gutxiengo etniko

* Kataluniako Kazetarien Elkargoaren Kazetaritzako Estilo Liburua.

7

bati buruzkoa denean, alderdi horiek nabarmentzeko joera -oro har inkontzientea- izaten dugu, nahiz eta albisteak osorik ulertzeko ezinbestekoak ez diren.

Gainera, joera hori areagotu egiten du presak, hau da, hedabideek ekoizteko dituzten epe laburren menpe lan egin beharrak. Eta joera horri aurre egin nahi badiogu, gogoeta egitea dugu, hain zuzen, halako eskemak ez berritzeko antidotorik onena.

2. *Ez ditzagun orokeriak, manikeismoak eta informazio sinpleegiak erabil. Europako Batasunean bizi diren atzeritarrak ez dira guztiak berdinak, Batasuneko bertako guztiak berdinak ez diren bezala.*

Badirudi hedabideak irudi zehatz baten bila dabiltzala, gertakizun zehatz baten bila, estereotipoa baietsi ahal izateko. Egia da, bai, azalean eta mamian sistematikoki kontzeptu orokorrez baliatzeak informazioa ulertzea errazten duela; baina, aldi berean, horrela jokatzuz gero, errealitatea desitxuratu eta neurritz gain sinpletzen da. Europako Batasunean bizi diren etorkinen izaera eta egoeren aniztasuna, izan ere, hedabideek azaldutakoa baino askoz urgariagoa da.

Albistean aipaturiko giza taldearen edo norbanakoen bazterka areagotu egin ohi dute topiko negatiboak. Pertsona alderdi negatiboak baino nabarmentzen ez dituzten eta, gainera, gizartean barneratuta geratzen diren topikoak saihestu egin behar dira. Orobat, orokorkerien bidez, inkontzientean gutxiengo etnikoa eta gizarte-arazoa kontzeptuak elkarrekin lotzen ditugu, inolako funtsik gabe.

Irakurleari laguntzeko asmoz, berria errazago uler dezan, termino orokorregiak erabiliz gero, berriaren hartzaileak errealitatearen ikuspegi manikeoa ematen diogu. Kazetariak gizartearen egoera etnien arabera azaltzeko joera dute. Baina Europako Batasunean bizi diren etorkinak gure gizarteko beste giza taldeak bezain heterogeneoak dira.

Giza talde bakoitzari dagokion izendapen zuzena erabili beharrean, besterik beste, aurreiritziz batetako ohiko esamoldeak eta topikoak erabili ohi dira. Hori gerta ez dadin, hoberena da albistearen protagonistei galdetzea ea zelan agertu nahi duten: norbanako gisa edo giza taldea gisa.

3

■ *Ez dira informazio negatiboak eta sentsazionalistak bultzatu behar. Ez ditugu alferrikako liskarrak eta dramak sortu behar. Albiste positiboen bilaketa areagotu behar da.*

Sarri askotan, informazio bila gabiltzanean, bizitzari eta errealitateari buruzko gure ikusmoldea baiesten duten objetuen edo irudien bila ibiltzen gara. Gauzak horrela, gehienbat negatiboa den ingurune batean, hartzailen iritzia eta negativo bilakatzen da.

Antza, Europako Batasunean bizi diren etorkinen inguruko berriak sentsazionalismoagatik dira erakargarriak, eta ez edukiagatik. Informazio negatiboek soilik erakartzen baldin badituzte kazetariak, gizarteak gai horretaz duen ikuspegia ez da inoiz positiboa izango. Horrek ez du esan nahi ez dagoela informazio negatiboak hedatzerik, baizik eta beste aldea, alde positiboa, era azaldu behar dela.

Begiratua egiten badiegu, gutxiengo etnikoak eta haietako kide diren gizabanakoak ia beti honela agertzen direla ohartuko gara: gaizkin gisa. Edo ezbehar guztiak nozitzen dituzten pertsonak bailiran. Betiere, gutxiengo eta gizabanako horien irudia lohitu egiten da. Aitzitik, etorkin horiek herritar arrunt gisa agertu beharko lirateke hedabideetan

Erabiltzen ditugun terminoen garantzia ere gogoan izatekoa da. Hedabideetan ikusi ohi ditugun hainbat termino bizertu egin behar genuke: etorkinei lotuta inbasioa, gaixotasunaren agerraldia, etorkin samalda edo jende-oldea bezalako terminoak erabiltzeak gizartean oso irudi tzarra ematen die Europako Batasunean bizi diren etorkinei.

9

4

Informazio-iturrien inpartzialtasuna. Erakundeen bertsioak egiaztatu egin behar dira. Gutxiengo etnikoen informazio-iturri propioak bultzatu behar dira, eta etorkinen herriei buruzko informazioak tentu bereziaz prestatu. Zuzenketak argitaratzea, hedabidearen kalitatea hobetzeko modua.

Hedabideek, beren gizartearen isla diren aldetik, informazio-iturri batzuk ofizial bihurtzen dituzte, bestelakoen kalitatean. Erakundeek emandako berriak hartzen dira fidagarritzat beti.

Hauk dira, hain zuzen ere, etorkin-talde bati edo gutxiengo etniko bateko gizabanako bati buruz informazioen bat egin behar denean gehien erabiltzen diren informazio-iturriak, ematen zaien garrantziaren hurrenkerari jarraituz: ministerioak, inmigrazioaren arloko adituak, gizarte-zerbitzuak, gobernu kanpoko erakundeak, polizia, eta udalak. Ia inoiz ez diegu galdetzen etorkinei berei.

Informazioak ekoizteko epe laburrek eta gai horretako berriemaile finkorik ezak izan ohi dute hori hala izatearen erruaren zati handi bat.

Beti erakundeen informazio-iturrietara jotzeko ohitura apurtu behar dugu. Badira bestelako berriemaileak ere, eta halakorik ez denean sor daitezten bultzatu beharko dugu. Ondo legoke, beraz, Europako Batasunean bizi diren etorkinen taldeek euren egoeraz jabetutako kazetarien zerrenda bat egitea, berriren bat sortzen denean haiengana jo ahal izateko.

Kazetariok, berriz, etorkinen taldeko berriemaileen, adituen eta espezialisten zerrenda izan behar genuke; hau da, gai horietan sakontzeko gai diren eta, estereotipoa apurtzearen, bertsio ofizialaz besteko ikuspunta eman dezaketen zerrenda.

Europako Batasunean bizi diren etorkinak zuzenean nahiz zeharka aipatzen dituzten informazioen zuzenketak argitaratzea, bestalde, hedabideari on egiten dion ohiko joera gisa onartu beharko litzateke. Zuzenketa berez egin behar da, inork eskatu beharrik gabe; eta okerra argitaratzen denean lasterrera egin ere. Okerrak zuzentzeko ohitura sortarazi behar dugu.

5

■ *Profesionalon erantzukizuna. Informazioaren kokapen fisikoaren garrantzia. Domino efectúa. Irudien erabilera.*

Oso garrantzitsua da Europako Batasunean bizi diren etorkinak zuzenean nahiz zeharka aipatzen dituzten informazioei zein leku egiten diegun begiratzea. Kontua -kontu nagusia- ez da zenbat eman diegun, baizik eta zelan eman diegun. Hau da, gure informazioa zein testuingurutan eman dugun, alboan zein berri izango dituzten paperean edo hertz-uhinetan (ikus-entzunezkoei dagokienez).

Alderdi etnikoak, erlijiosoak edo kulturalak dituen informazio batek ezaera negatiboa baldin badu (heriotzak, gaixotasunak, gerrak...), ez diezaiela eragin, hedabidearen barruan bata bestetik gertu daudelako edo hedatzen den uneagatik, hurbilagokoak ditugun eta antzeko erreferente etniko, religioso edo kulturalak dituzten informazioei. Izan ere, informazio negatiboak eragin egiten die inguruan dutuen eta erreferente bera duten informazioei, bata bestearen gainean erortzen diren dominoko fitxekin gertatzen den bezala.

Egunkarietako editoreek eta atal, arlo edo itxierako buruek ezaten dute informazio bakoitza non kokatu behar den erabakitzeko erantzukizuna. Horregatik, haiek dute hedabidearen informazio-eldukiaren ikuspegi osoa izateko gaitasunik handiena.

Irudiak (argazkiak, bideoa, eta abar) dira errazen manipula daitezkeen elementuak. Hain esanguratsuak direnez, zuhertasunik handienaz jokatu behar dugu informazio baten zentzua erabat aldaraz dezakeen irudi bat aukeratzerakoan.

6

- *Kazetarien militantzia: kultura-aniztasunerantz, guztion onerako. Informazio positiboak bultzatzea.*

Hedabideek gizarteak errealitateaz duen ikuspegian duten eragina dela eta, kulturaren aniztasunaren alde ona erakusteko ardurarik handiena behar du izan informazioko profesionalak.

Informazio gehienak negatiboak diren testuinguru batean, albiste positiboak bilatzeko eta egiteko oso garrantzitsua da profesionalaren borondatea. Horrek ez du esan nahi errealitate light bat azaldu edo informazioak ezkutatu behar direnik. Informazio positibotzat honako hauek hartzen ditugu: ekintza positibo baten adierazpenak jasotzea; edo edozein informazio era positibo batean aurkeztea.

Beste jarduera-arlo honakoa litzateke: telebistako albistegietan, irratian, egunkarietan, aldizkarietan edo beste edozein informazio-produktutan hainbat gutxiengo etnikotako kazetariak eta aurkezleak agertzea. Horrek normalizazio-eragin nabarmena dakar.

12

7

- *Sexu bietako gizabanakoak biltzen dituzten taldeak aipatzerakoan gizonezkoak baino ez izendatzeak emakumezkoak ezkututzen ditu, ez ditu islatzen emakumezkoek bizitzako arlo guztietan egindako ekarpenak; gainera, errealitatea desitxuratu ere egiten du.*

Hitz egiteko eta idazteko modua aldatu beharra dago, gure erkidegoan bizi diren gizonezko nahiz emakumezko atzerritarrek egindako ekarpenak ikustarazi, errespetatu eta onartzeko. Horregatik pertsonak sexuaren arabera deskriminatzen ez duen hizkuntza bat erabili behar da.



Emakume etorkinak ikusezin eta biktima bihur ez daitezzen, eta hedabideetan biktima bezala ager ez daitezzen*

- Banandu sexuka immigrazioari buruzko kopuru eta datu guztiak, hasi kopuru globaletatik eta talde jakin batzuei buruzko kopuruetaraino.
- Ez adierazi emakumearen egoera zibila edo bikote egoera, datu horrek garrantzi informatiborik ez badu.
- Jaso emakumeen iritzia eta entzunarazi beren ahotsa.
- Galdetu emakumeei beren migrazio proiektuari buruz: zergatik erabaki zuten beren herritik alde egitea, zein espektatiba zituzten eta zein egoeratan dauden orain.
- Piztu ondoko gaiei buruzko eztabaida soziala, gatazka sortu baino lehen: emakume etorkinen lan egoera, prekarietatea, ezkutuko merkatuan lan egiteagatik aurkitzen dituzten erregularizazio arazoak, zerbitzu gabezia, eta abar.
- Emakume etorkinak ez dira kultura atzeratuetatik datozen emakume esanekoak.
- Baztertu diskurtso autodiskriminatzaileak edo errugabetzaileak.
- Prostituzio sare eta mafien desartikulazioari buruz informatzean, hitz egin emakume "liberatuen" patuaz eta kanporatuak izateko duten arriskuaz eta saiatu beren testigantza jasotzen.

13

* "Género y discursos sobre la inmigración en la prensa". Clara Pérez Wolfram (Mugak, nº 4, primer trimestre de 2003).



Nolako tratamendua eman hurrei albisteetan* *

- Adin Txikikoak Babesteko 1/96 Legeak dio adin txikikoa, espainiarra nahiz atzerrikoa, babestu behar dela oroz gain eta kasu guztietan. Adin txikikoak dira 18 urte bete gabe dituztenak.
- Bidegabeko intromisioa izango da haien intimitateari, ohoreari edo ospeari kalte eragin diezaiokeen irudiak edo informazioa zabalitzea, berak edo legezko ordezkariak baimena eman badute ere.
- Ezin daitezke judizio batean inputatutako adin txikikoen irudiak hartu, ez eta adin txikiko hori identifikatzen lagun dezaketen irudiak edo datuak zabaldu, ez areto barruan ez kanpoan.
- Judizio bateko biktima edo lekuko direnean ere, ezin daitezke haien irudiak hartu, nahiz eta gurasoek edo tutoreek horretarako baimena eman. Identifika ezin daitezkeenean soilik agertuko dira irudi edo grabazioetan (bizkarra emanda, aurpegia estalita, eta abar).
- Adin txikikoen fiskaltzak dio ezin dela adin txikikoen irudirik hartu delitua egiten edo araua hausten ari direnean, irudi horiek haurren interesen kontrakoak direlako.
- Hedabideei dagokienez, hurrei galdetu nahi bazaie gurasoen, legezko ordezkarien, tutoreen edo irakasleen aurrean izan behar du. Gainera, haur gaixoen kasuan bere intimitate, autoestimu, eta abarri kalterik eragin gabe eman behar da albistea.

* Manual per a periodistes sobre la protecció de la infància en els mitjans de comunicació. *Petra M^a Pérez Alonso-Geta. Universitat de València. Unió de Periodistes Valencians.*

- Adin txikiko bati elkarrizketa egitean edo berari buruz informatzean, haurren intimitate eta konfidentzialtasun eskubideak errespetatu behar dira oroz gain eta, nolana ere, kalte eta errepresalietatik (errealak zein gerta litezkeenak) babestu behar dira haurrak.
- Haurren interesak lehentasuna du beste edozein irizpideren gainetik, baita ere hurrei buruzko injustiziak salatu behar direnean edo beren eskubideak sustatu behar direnean.
- Inola ere ezin daiteke haurren sentsibilitatea zauritu. Ez egin haurra epaitu, umiliatu, gutxietsi edo mindu dezakeen galdera edo aipamenik eta ez erakutsi beren sinesmen edo balore kulturallekiko arbuiorik.



Kataluniako ikus-entzunezkoen kontseiluaren gomendioak informazioaren trataera informatiboari buruz*

Agintariei bereziki gomendioak

1. Immigrazioari dagozkion aferetan zaindu behar duten kalitate orokorra alde batera tusita ere, komeni da agintariak oro har, immigrazio aferetan eskunduntza espezifikoa dituzten agintariak eta immigrazioarekin zerikusirik duten elkargo profesionalak (segurtasun, prebentzio, asistentzia edo zerbitzu alorretakoak), ezaguera osoz onar dezaten gai horretan eurak ere informazio iturri direla.
2. Usaiako informazio iturri izate horrek berarekin dakar, immigrazioari eta etorkinei buruzko albiste eta mezu publikoak zabaltzeko, komunikabideei euren lana errazteko erantzukizun espezifikoa.
3. Agintari eta elkargo profesional hauek helburu nagusitzat hartu behar dute kuminikabideei informazio doi, zehatz, egiaztatu eta kontestualizatuak ematea.
4. Informazio hauek, egoerak azaltzean, ez dute ez espektakularizaziorik ez dramakeriarik egin behar, eta ez dute larrarazi behar mezuaren hartzailea ez sinplifikazioetara, ez ustekeria gaitzesleetara, ez aurreiritzi xenofobo edo diskriminatzaileetara.
5. Agintari eta administrazioetako elkargo profesional hauek, informazio katearen lehenbiziko begia diren aldetik, behartuta daude immigrazioa azaltzera ez arazo bezala, baizik eta albiste bezala, baztertu gabe haatik kasuan-kasuan immigrazioarekin lotuta egon daitezkeen tirabira eta kontraesanak. Ordea bistatik galdu gabe immigrazioa gertakari sozial edo

historiko ia permanentea, betikoa, dela, eta gaur eguneko gizarte gehienetan gertatzen dela, norabide bietan. Ahaztu gabe, orobat, immigrazioa ez dela berez mehatxu bat eta anitz ikuspegitatik aztertu daitekeela baikortasunez, gizarteari onura eta aberastasuna dakarkion fenomeno bat bezala.

6. Agintari eta elkargo profesional hauek berebiziko kontua izan behar dute erabiltzen duten hizkerarekin, eta eginahalean saiatu behar dira topiko diskriminatzaileak sekula ez erabiltzen, eta immigrazio egoeran aurkitzen diren jende eta kolektiboen, bai eta horien inguruar social eta kulturalen alderako errespetua agertzen duen mintzamoldea erabiltzen.
7. Oso komeni da administrazioen informazio eta komunikazio zerbitzuen arteko lankidetzeta eta koordinazioa segurtatzea.


Ikus-entzunezko enpresei bereziki gomendioak

1. Ikus-entzunezko informazioa ekoizten duten enpresa publiko nahiz probatuak, gizartearen aurrean daukaten erantzukizunari erantzunez, behartuta daude etorkinak gizarteratzeko politikei laguntzera. Paper aktiboa jokatu behar dute mograzioen eta horien testuinguruen gaineko informazioa eta ezagupenak zabaltzen, elementu estrategikoak batira horiek aniztasuna modu aurreratuan eta aurrerakoian kudeatzeko. Azkenik, gizarte mailako elkarrizketa giroa finkatzen lagundu behar dute.
2. Ikus-entzunezko enpresek ahalmen handia baitute albisteak hedatzeko, komeni da ahalmen hori balia dezaten immigrazioari buruzko oinarritzko informazioa zabaltzeko bertako populazioari eta, bereziki, populazio alogenoari, honek askotan arazo handiak baititu ezagutza instrumental funtsezkoenak eskuratzeko.
3. Irizpide profesionalak eta barneko berme prozedurak ezarri behar dira iturri partzial edo gutxi kontrastuetara sekula ez jotzeko. Komunikabideek autoarauketa bultzatu behar dute eta immigrazio arloko albisteen kalitatea zaintzeko instantziak edo mekanismoak prestatu behar dituzte.

4. Komeni da kode profesional espezifikoak indarrean jartzea migrazioen trataerari buruz edota komunikabide edo talde bakoitzaren estilo-irizpide propioak finkatzea topikokeriak, esamolde errutinazkoak eta hizkera diskriminatzaileak ahalaz eragozteko.
5. Ikus-etzunezko informazio enpresek, zeinek bere indar eta ahalen neurrian, indartu egin behar dute immigrazio aferetan inplikaturako profesionalen espezializazioa, prestakuntza eta ezagueren etengabeko aktualizazioa.
6. Empresa hauek baliabideak inbertitu beharko lituzkete, baita ere, iturriak dibertsifikatzeko, eta immigrazioari buruzko albisteak ematen dituzten langileei denbora eta lan-baldintza egokiak eman beharko lizkiekete modua izan dezaten mezu konplexuagoak, kontestualizatuagoak eta azalpen ahalmen handiagokoak prestatzeko.
7. Eginahalean saihestu behar dira neurritz gainera baliabide despliegeak eta soberazko fokalizazioan oinarritutako estrategiak, etorkinekin zuzenean nahiz zeharka lotutako gertakari edo gatazka batzuen ohiartzuna puztu baizik bilatzen ez dutenak. Gogoan izan behar da gertakariak artifiziarki espektakularizatuz indartzen direla gehienik ikuspegi topiko eta errazkerietara lerratuak.
8. Era berean, gertakarien albistea ematerakoan komeni da batzuetan informazio muntadunik ez dakarten elementu anekdotikoak, errutinazkoak edo soberazkoak alde batera uztea eta, aldiz, gertatzen diren gauzen sakoneko arrazoiak ulertzera eramango gaituzten adituen gogoetei toki gehiago ematea.
9. Plantillak osatzerakoan, eta merezimendu, egokitasun eta oportunitate irizpidetan oinarritutako aukeraketa prozesuak ezertan kolpatu gabe, aintzat hartu beharko litzateke gizar-tean dagoen aintzasun eta ezbersitasuna.

Ikus-entzunezko komunikabideetako informazio alorreko profesionali bereziki zuzendutako gomendioak

1. Migrazioari buruzko albisteak ematerakoan ezinbestekoa da etorkinak eurak artean informazio iturritzat eta horien adierazpenekin osatzea ohikoak diren beste informazio iturri batzuk, nola baitira polizia eta epaitegiak. Informazioa kontrastatu, erlatibizatu eta iturriak dibertsifikatzeko araua berdin aplikatzen zaio informazio iturri ofizialei.
2. Informazio iturrien aniztasunaren printzipioaren ildotik, immigrazioari buruzko informazioa prestatzerakoan beharrezkoa da etorkin jende eta kolektiboetara ere adierazpen askatasuna bereziki bermatzea.
3. Intimitatea eta pribatasuna eskubide unibertsalak dira eta pertsona guztiei aitortu behar zaizkie begiratu nor zein herrialdetatik datorren edo zein egoeratan aurkitzen den. Baztertu behar dira hildako edo zauritutako jendeen plano hurbilak, are komunikabideen erreferentzia-esparrutik urrun dauden gertakariak azaltzen direnean ere. Pertsona edo gertakari batzuk exotikoak edo urrunekoak direlako aitzakian ezin da, inongo kasutan, autokontrol eta autoarauketa neurriak laxatu informazioa ematerakoan, are gutxiago gero eta kultur aniztasun handiagoa duen gizarte batean.
4. Immigrazioari buruzko informazio ematean zorrotz zaindu behar da pertsona bakoitzak bere intimitatea begiratzeko duen eskubidea. Ahalaz ez da egin behar hurbil-hurbileko irudirik edo plano motzik kasuan kasuko protagonistaren baimenik gabe. Hedabideek eta etorkin emigratu berriek elkar ulertzeko izan ditzaketan arazoak direla eta, berebiziko kontua izan behar da etorkin horien borondate eta nahia ezertan ez bortxatzeko. Gomendio hau eta urrekua areago baizik ez dira bete behar tartean adin txikikoak daudenean.
5. Immigrazioari buruzko albisteak ematean ez da erabil behar hizkera diskriminatzailekerik edo aurreiritzi orokorrak zablatzen dituenik. Arautu gabeko egoera administratiboan aurkitzen diren etorkinez hitz egitean ez da erabili behar, errutinazko deitura bezala, ilegala, agiri gabea edo paper gabea bezalako hitzik.

- 
6. Orobat, etorkinez mintzo garenean ez ditugu erabili behar kutsu gaitzesgarria duten kalifikazio topikoak. Adibidez, ezin ditugu sistematikoki uztartu erlijio jakin bat eta jarrera fundamentalistak.
 7. Bereziki komenigarria da hizkera zaintzea izenburuak eta albisteetako laburpenak idazterakoan, zeren askotan gauzak labur adierazi beharrez zahaztasuna galdu baitezakegu edo estereotipoetan erori gaitzke.
 8. Immigrazioari buruzko albisteak ematerakoan oso komeni da ikuskizuna sortzeko kazetaritzan erabili ohi diren efektu eta teknika ez erabiltzea.
 9. Albiste batzuetako protagonisten jatorria edo azal kolorea azpimarratuz ez dugu beharrezkoa gertakaria ulertzeko eta, aldik, aurreiritziak azkartzen ditu eta kutsu ezezkor edo gaitzesgarriz tondatzen du istorioa. Horrelako erreferentziak oso tentuz, neurritz eta modu kritikoz erabili behar dira, informazio doi, zehatz eta osotu bat apailatzeari begira.
 10. Era berean, eta deitura kolektiboei zeharo uko egin gabe, onartezina da gutxiengo etniko etorkin multzo bat jarduera ilegal batekin lotzea, gerta baitaiteke azkenerako ikusle-entzuleek uste izatea delako jarduera horitalde horren berezko ezaugarria edo dela.
 11. Immigrazioarekin zerikusia duten albisteak kontestualizatuz eta etorkinen jatorrizko herrialdeetako egoerari buruzko argitasunak emanez, hobetu egiten da informazioaren kalitatea, entzulegoa gogoetara pausatzen da eta estereotipoak errausten dira.
 12. Estereotipo horiek indarra hartu dute zeren herrialde, eskualde edo kontinente batzuen inguruko albisteak ematerakoan modu sistematiko eta gehiegizkoan aipatu dira gerra eta miseria, alde batera utziz ezbeharrek, gatazkek, gosetek, gabezia gorriek edo triskantzek ukitzen ez dituzten eguneroko bizitzaren alderdi guztiak. Informazio mota horren bidez bizimolde eta aurrerapen eredu bakar bat –eurozentrikoa– zabaldu da. Era horretako murriztapenak errotik zokoratu eta borrokatu behar dira, eta beti saiatu behar da mendealdekoak ez diren gizarteen ikuspegi osoago, konplexuago, irekiago eta askotarikoago bat ematen.

13. Ez da erabili behar artziboko irudirik irudi horiekin zerikusirik ez duten albisteak azaltzeko. Ematen diren artziboko irudi guztiak egoki erreferentziatuta eman behar dira beti eta ego-kiak izan behar dira.
14. Orobat egoki erreferentziatuta agertu beharko lirateke beti –bakoitzaren izena eta, hala balegokio, egoera zibila edo bestelako edozein datu agertuz-, edozein komunikabidetako albisteetan agertzen diren etorkin guztiak. Komunikabideak inoiz ezin du bere lekuko bat pertsona anónimo gisa aurkeztu, lekuko horrek hala agertzeko eskari espresa egin ez badu.
15. Arrazistak edo diskriminatzaileak diren aipuak, adierazpenak edo bestelako materialak, nahiz izaera historikoa edo eruditua eduki, egoki makatu eta identifikatu behar dira, eta ahal den neurrian argiro azaldu behar da beti zein den horien egilea testuingurua.
16. Kontuan izanik hainbeste talde zibiko-sozial, elkargo profesional eta erresakziok egin duten ahalegina hizkuntza txukun erabiltzeko eta kutsu xenofoborik duten ohitura diskrimina-tzaileak ezabatzeko, beharrezkoa da, beste aldetik, jarrera paternalistetan ez erortzea, arris-kua baitago horiekin errealitatea desitxuratzeko eta, paradoxikoki bada ere, jarrera etno-zentrikoei indara emateko.

Azken gomendioak herritar guztiei zuzenduak

1. Immigrazioari eta etorkinei buruzko albisteak prestatu eta ematerakoan, ezinbestekoa da aurregogoeta orokor batzuk eskaintzea, normalean eskaintzen ez direnak. Diskurtso informatiboan gogoetarako elementu batzuk sartu behar dira ikusarazteko immigrazioa ez dela mehatxu bat, baizik eta orotan zabal dabilen populazio mugimendu fenomeno arrunt bat. Orobat, elementu horien bidez ulertarazi behar da etorkinaren izaera, berez, izaera pasakorra dela, eta luzatzen eta egonkortzen denean motiboa ez dela besterik baizik eta integrazio mekanismo político, social eta kulturalen eskasia.
2. Ez da automatikoki lotu behar, dela inplizituki edo dela esplizituki, migrazioa, batetik, eta indarkeria, markinalitatea, nahasmendua edo delinkuentzia, bestetik, azken hauek kontestualizatu gabe edo euren sakoneko arrazoiak aztertu gabe.
3. Bultzatu egin behar dira etorkinekin zerikusia duten albiste baikorrak, ordea egia afruntatu gabe edo helburu horrekin errealitatea deusetan mozarrotu gabe. Agintariak, komunikabideak eta profesionalak behartuta daude egia agertzera eta informazio eskubidea zerbitzera, baina erantzukizun soziala ere badute bizikidetasuna sustatzeko askatasun, aniztasun eta zibismoko testuinguru batean.
4. Saihestu behar dira immigrazioari buruzko ikuspegi nuklearrak, ustez pragmatikoak, zeharo utilitaristak, balioak aintzat hartzen ez dituztenak eta immigrazioa gizarteak dituen premia batzuentzako aldi baterako erantzuna bezala aurkezten dutenak, esaterako populazio beharakadarentzako edo lanmerkatuaren premientzako erantzuna bezala.
5. Gogoratu behar da adierazpen askatasunak etorkinak ere osorik eta salbuespenik gabe babesten dituela euren izaera, hots, informazioaren subjektu eta objektu bezala.



Bibliografia

Quaderns del CAC nº12 (enero-abril 2002). *Medios de Comunicación e Inmigración.*

Quaderns del CAC nº23-24 · septiembre-abril 2006. *Televisión e Inmigración.*

WOLFRAM, P.C. (Mugak, nº4, primer trimestre de 2003): *Género y discursos sobre la inmigración en la prensa.*

EMAKUNDE, INSTITUTO VASCO DE LA MUJER (1988): *El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje.*

INSTITUTO NAVARRO DE LA MUJER (2003): *Mujer publicada, mujer maltratada: libro de estilo para informar en los medios de comunicación sobre la mujer.*

DÍEZ L.P.: *"La construcción mediática de género en los libros de estilo"*

DÍEZ L.P. (2005): *2º Informe de la Investigación: Representación de género en los informativos de radio y tv.* Instituto Oficial de Radio y Televisión (IORTU), Instituto de la Mujer (MTAS.)

AYUNTAMIENTO DE TERRASSA (2005): *Manual de comunicación no sexista.*

BILGUNE FEMINISTA. CORDEIRO C.; RODRÍGUEZ A.; HERRERO A.; RUIZ P. (2006): Libro de estilo para evitar el sexismo en los medios de comunicación.

FORO CANARIO DE LA INMIGRACIÓN (2002): *Por una comunicación Integradora y No Xenófoba.*

ANDALUCÍA ACOGE (2002): *La Inmigración Comunica. Propuestas para el tratamiento informativo de la inmigración.*

RAMONEDA M.: "Els menors Immigrants sota els ulls de la premsa".

ALONSO-GETA P.P.M. (2004): *Mans Menudes. Manual per a periodistes sobre la protecció de la infància en els mitjans de comunicació.* Universitat de València. Unió de Periodistes Valencians.

ARARTEKO (2004): *Recomendaciones a los cuerpos policiales dependientes de las administraciones públicas vascas sobre el tratamiento de la información que proporcionan sobre la inmigración.*

GIRÓ X. (2005): Propostes per a la millora del tractament informatiu de la immigració. *Fundació Jaume Bofill.*

Webs:

Migracom: www.migracom.com

Xenomedia: www.xmbcn.org

Mugak: www.mugak.org

Emakunde: www.emakunde.es

CAC: www.audiovisualcat.net

Andalucía Acoge: www.acoge.org

Ikuspegi: www.ikuspegi.org

Agenda de la Comunicación del Gobierno Vasco:
http://www1.euskadi.net/helbideak/indice_c.asp

Colegio de Periodistas de Cataluña:
www.periodistes.org

Colegio de Periodistas de Bizkaia:
www.perioditasvascos.com

Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía:
www.apdha.org